

# BORDEL'EN MINTZAIRA



Erdaldunak anitzetan erran oi dute Eskualerriak, ain ttipia izaiteko, ainbertze eskuara mota zertako dituen. Erritik errira ere bere diferentziak badirela balakite, zer erran lezakete?

Donazaarren gertatu nintzan behin batez eta gizon bati zerbait galdetu behar izan nion. Galdetuari errepostu eman ondoan au erantsi zidan:

—“...Arnegy edo Luzaide alde ortakoa zaitugu, naski...

—Izan daike, erantzun nakon.

—Mintzaitetik ageri duzu.

Eta ez delaik urrun Donazarretik Luzaide!

Gañera ez nintzan “xuka” mintzatu: luzaidarrek berek erraiten dute ez dela pollit apez batendako. “Zu”, errespetu gehiokoa omen da. Donibane Garazin, berriz, buamien mintzaira dela-ta irri egiten dakote “xuka” ari denari. Auzo-errien gora berak!

Alde bat, eskuarak kalte aundia du ortan. Orai berean “Zeruko Argia” artzen duen emazte batek erraiten zidan: “ez dut nik fitxik konprenitzen ahal!”. Eta sinisten dakot.

Bainan, bestalde, edozeinek ikusten du eskuara nola aberasten duten xehetasun oriek oro. Utsa, elgarren berri ez gehio ukaitean dago.

Erri baktoxaren berexpundu nabariena berboan ageri izaiten da. Eta berbo konduan borda bete ahala ardi badu eskuarak: aberatsa da. Nik Luzaideko molde bat edo beste bakarrik aipatuko dut, eta “Bordel” zenaren laner gehienik lotuko naiz.

$$1.^a \quad T = K$$

Askotan ibiltzen du Bordelek bere  $t$  ori,  $k$  beharrean:

$aite = naike$ .

Zu afrontatu gabe konsola *naite* (Ene Andreg. 3).

Goberniaren kontra erreklama *naite*

Behar den erregela ez dute maite (Donostian Sol. 25).

Eta soldadoskoan nola ibili zituzten agertzera emaiteko dio:

*daite* = daike.

Jende miserabilia arrapatzen dute  
pena da irautia, erran ahal *datte*,  
Afer manatzeko sobera tunante (ib.).

*Heldaite* = heldaie.

Kondata ahala bano gehiago pena  
Sofritzera *heldaste* hala dabilena (ib. 2).

*Daitena* = daikena.

Obrarik den gaistuen  
Oray predikatzen dena  
Ezin esplikatu *daitena* (I. Karlistenak; 3).

*Daiztela* = daizkela.

Konsulta egin zaukun gure abokatak  
Ezin garbi *daiztela* olako bokatak (colada).  
(Luzaideko Indemn. 2.)

*Laiite* = laike.

Bortz ehun urte konpli frontieran kimera  
Bi nazionetako auzoak minbera  
Oraino segi *laiite* inbidia bera (Lim. Gain. 2).

*Laitenik* = laikenik.

Arribada baneza ongi manifesta  
Lastima ez *laitenik* konpañian ezta  
Bi aldetarik tiroka gure errekesta... (Donost. Sol. 6).

## 2.<sup>a</sup> -REN = -KO

Baxenabarreko idazle guziak ibili oi dute. Bernard Dechepare'k zenbat aldiz ez du ekartzen?

Orai dute ikasiren nola gauza ona den.  
(Euskara da kanpora, 2.)

Eta "Judizio Jeneralean":

"Mundu oro jarriren da bi lekutan hersirik  
Glorian ezpa ifernuian, ezta eskapatzerik" (3).

Bordelek ere begiko du:

Gero ere norbaitek *irriskaturen* du (Xuar, 8).  
Aise pasaturen dut bizi ondarra (Ene Izpirituan, 11).  
Gero ere norbaitek *irriskakturen* du (Xuar, 8).  
Ene penak *finituren* dira ni juanez geroz mundutik.

(Biotza zeraut, 4.)

Orai etzaio itzuliren bakotxari beria (Ayundamenkudo, 1).

Eta "Oroit gaiten guziok" izeneko bertsutan ifernuan erortzen den arimak izanen duen minik aundienaz dio:

"Ez baitu ikusiren sekula Jainkoa" (7).

### 3.<sup>a</sup> DIRO

Ithurry, Sara'ko jaun Erretora izanak bildu zituen berbo konduan alderdi hotako xehetasun gehienak. Ederra da bere "Grammaire Basque" liburuan egin zuen lana. An aipatzen den bezala *diro*, *dezake* balitz bezalatsu da; bainan ez berbo osoa. Bordelek auxiliar edo ondoko bezala erabiltzen du. *Niro*, *diro*, eta *liro* gehienik ateratzen ditu; erran dugu potenzial *dezake*'ren indarra (bere lekuan *nezake* edo *lezake*'rena) duela. Ori bai, berdin ar laizke mementoko nola geroko menturan: *Eginiro*, erraite baterako berdin izan daike "egin nezake", nola "eginen nuke".  
*Eginiro* = egin nezake.

Geroko mentura banu segurra

*Eginiro* hura anitzen gustura

Zaharren gaztetzeko baginu moda (Ene Izpirituan, 6).

*Emani-ro* = eman nezake.

Beldur izan behar du gerlate aundier

Etan eztatzen dira zombait gizon fier.

Biotzez *emani-ro* konseilu guzier:

Penarik ez desira auzoko errier

Jaunak barkatu zuen bere hiltzalier (Lim. Gainian, 9).

*Niro* = nezake.

Ni ote naiz munduan lehena

Amodiuak tronpatzen nauena?

Ondokuengatik gehio sofri *niro*

Nitaz fini baladi azkena (Biotza zeraut, 2).

(Nitaz fini ez baladi ote da? Leku guzitan "fini baladi" ikusi dut.)

*Nirote* = nezakete.

Amodiotan den presuna ez da beti alegera

Plazer bezanbat pasatzen dixi penetan denbora;

Ni ere alaxe niabilazu galdurik odola

Mundu ontako plazer guziek ez *bainirote* konsola

Hilik ere ez dut axola (Barberaren koblak, 5).

*Diro* ere kasu berean da. Bakarrik, beste modu batean ere artu laike Bordelek zombait lekutan erran nahi duenaren arabera. Lehenik ikusiko dugu auxiliar bezala, eta gero bestea.

Anitzetan potentzial bezala ongi etorriatik, futuro edo gerokoa obeki eldu zaio:

*Egin diro* = eginen du.

*Atzeman diro* = atzemanen du.

Buruzagiak *atzeman diro* bizideneke nekia

Bere baitarik ez badu maite familiko bakia (Etxaundiko, 1).

Donostian soldado egon zen denboran zuzentasuna nun zailan agertzera emaiteko erraiten du:

...ez dute ikusi nahi persona justua

Nola *zerbitza diro* jendiak gustura

Beti errespetatzen dute injustua (Donost. Sol. 24).

*Zerbitzatuko du*, erran nahi du.

*Galdi* = galduko du.

Xuar zenaren eriotza egin zutener buruz emaiten du konseilu au:

Pratikatzen ez bada borondate ona

Sekulakotz *gal* bere urostatuna (Xuar, 20).

*Dirote* = dute.

Sumetitu beharko odren arabera

Anitzek ez *dirote* ori konsidera (Lim. Gain. 1).

Batzutan potentzialaren *-ke* ekartzen du gañera:

*Indiroke* = egin dezake.

Mutillen ondotik zabiltzen Bankako nexkatok da solasa, eta ara zer dion:

Nexkatuak gerlan ta mutillak bake

Amorante solasa dabilate merke;

Behar bada norbaitek fortuna *indiroke*

Eta beste norbaitek sekulako neke (7).

*Ez dirokete* = ez dezakete.

*Ez dirokete* kontina

Zonbaitek nahi luketena

Armada bertzek mantena (I. Karl. 3).

#### 4.<sup>a</sup> LIRO

Itz au ez da ainbertze ateratzen. Erran diren gauza gehienak onendako ere balio lezakete:

*Liro* = lezake.

Odol onik *inliro* zurekin gizonak (Ene Andregaiari, 6).

*Lotsa liro* = lotsa lezake.

Bera ere naparra zen bana eskualduna: “montañesa”, behean izendatzen giuzten bezala. Eta gorriak erakutsi bai zazkoten gaizo gizonari, or dute orai berena:

Nafarruako serbil lepondo gorriak  
Luzifer *lotsa liro* heyen koloriak,  
Montañesak girela oro traidoriak  
Matier finitzeko eman ez odriak...  
Arrasatu balitu enperadoriak!! (Donostian Sol. 27).

*Lirola* = lukela.

Zernahi egin *lirola* ez da fidatzeko  
Boza ematen duenak esposain galtzeko (Xuar. 21).

*Lirote* = lezakete.

Emen ere apezak zituen gogoan:  
Gizon gaistua frango gomerti *lirote*  
Mintzo diren bezala goberna balite (II. Karl. 3).

Eta puntu onen bururatzeko, beste itz bat:

*Etziroketen* = etzezaketan.

*Etziroketen* obra kristauek obeki  
Separatu dituzte nor beriarekin (Lim. Gain. 25).

*Ez baitziron uka* = ez bai zezakon uka.

Nexkato gazte baten bigarren erorikoz mintzo da, eta mutikoari buruz dio:

Goraki ukatu zion lehenbiziko paketa  
Bigarrena ez *baitziron uka*  
Bilatu dio gazaita (padrino) (Eluntxantzeko alaba, 9).

Beste batzutan “flexión indirecta” bezala ar daike. Erriko jendiak gehienetan ala dela uste izaiten du. Eni gertatu zait galdegitea: “zer erran nahi du *diro*, itz orrek? Eta gehienetan, *dako*, *dio* bezala artzen dute.

Eta batzutan hala da:

*Ez dirote* = ez dakote.

Karlistak begitan baizituen emen egin zituzten makurrengatik, “piku” au eman zien lekutu zirelarik:

Igortzen ahal dute Espaiñari Goraintzi  
Sekulan ez *dirote* gobernurik bentzi (Karl. kontra, 22).

Beste leku batean berriz Isabel bigarrena zerutan jarri nahiz erranen du:

Orain aren pareko prinziperik nun da?  
Gizon abilek ere ez *dirote* konda (Lim. Gain. 24).

Muga auetako arrañamenduak aren denboran egin baiziren, ortaz dazko eskerrak eman nahi.

Prinzipeguan abilenek ere ez dakotela itzalik eginen iduri du erran nahi izan duela.

*Eman diro* = eman dezake.

Naiz futuro bezala artu ditugun *diro* gehienak, bada bat potenzial izan daikena; Bankako Nexkatoen kantutan ateratzen da. Anitz zarkeri ta saltsa badela agertzeko dio:

Anitz hunkitzen dira oraiko suyetaz

Nork *eman diro* kondu obra guzietaz! (Bank. N. 11).

### 5.<sup>a</sup> "R" AFER BAT

Bada beste *diro* bat ere oraindik Bordelen bertsutan. Eta ez da nun nahi ikus daizkenetarik:

*Diro* = dio.

Eztu gaitzik merezi egia *dironak* (Xuar, 9).

*Dirote* = diote.

Aldi ontan apezak gitu partida; ez da konten karlister laguntzeaz:

Sazerdotek *dirote* otoitz egiteko

Karlos benedikatu septimuarendako (II, Karl. 4).

*Zeraut* = zaut.

Zutaz aipatzia guti aski dut

Biotza *zeraut* nigarrez urtzen (Biotza. zeraut, 1).

*Zeraitan* = zaitan.

Aitak eman *zeraitan* konseilu arina

Enetzat bazuela ezkontza egina (Aldudeko K., 4).

*Etzeraut* = Etzait.

Ene Izpirituan bazen zonbait bertsu

Oraino den guzia *etzeraut* hustu (Ene Izp. 1).

*Derayo* = darrio.

Naiz ez duen itz onek "r" aferrik, beste leku batean sartzeko plazan emen sar laike. Donostiako naigabeak ditu bertsulariak gogoan. Uste izan du Nafarroan sartzearekin etxean bezala izango zela, eta gaizkio bai-zik ez. Nolako biotzmina erakusten ez dute bertsu hok:

Arribaturik ere gure Errenura

Purgatoriotarik sartu ifernura (Donostian Sol. 23).

Zinezko gerla denbora! Bertsu auetan garbi ikusten da nola azken itzarekin biltzen zuen Bordelek bertze bertsuaren segida. Ortako ez dira ain aisa galdu anitz bertsu: behin ikasiz geroz ez dira nolanahi ahazten. Berek emaiten dute pundua.

“Ifernua” zuen azken itza, eta orrekin asiko du bertzea:

Ifernu bat egin daite españolezkua  
 Ez dute ikusi nahi presuna justua;  
 Nola zerbitza diro jendiak gustura  
 Beti errespetatzen dute injustua,  
 Tierra huni *derayo* gobernu gaistua (ib. 24).

*Derayo* = dariyo. “Le sale, le va; manar, producir.”

Nik uste, erdarazko “de tal palo tal astilla”, izan laikela itzulpen on bat.

*Dereitzat* = iduritzen zait.

Itz au ez dut Bordelena: Probintzia aldeko bertsutan bildua da. Jainkoaren legeko Amar Aginduak badira Durango'ko F. Elosuren Mol-diztegian argitaratuak, ez dakit noizkoak eta ez norenak. Arietako bost-garren manamenduan erraiten da:

Munduan askok dugu  
 Alkar ezin ikusia  
 Biziro dala *dereitzat*  
 Kontu itsusiya  
 Estimatzeko prenda  
 Gizonaren biziya.

## 6.<sup>a</sup> NAIZ, NAHIZ

Anitz aldetara ibili oi du itz au:

*Naiz* = “aunque”.

*Naiz* ez den jendia anbat alegera (Bankako lau andre, 1).

*Nahiz* = nahi izanez, “queriendo”.

Nik enuke sartu nahi afer'orietan barna  
 Etzazula gaizki artu huntsa *nahiz errana* (Ayundamend. 6).

*Naiz* = (auxiliar).

Orai zuri mintzo *naiz* suyetan buria (Ayund. 7).

*Naiz* = “soy”.

Sortzez eta bataioz ni *naiz* luzaidarra  
 Orok dakitena Bordel xaharra (Ene Izp. 11).

Batzutan ez da aisa ageri, bat den edo bestia. “Ene Andragaiari”, Bordelek eman bertsurik oberenetarik dira. Neskato zombaiten uste-aundiak apaldu nahi ditu; eta nunbait errana baizuen, berak nahi izanez bertsulariaren biotza eskutan lukela, ona errepostua:

Egon naiz miletan  
 Bertze anitzetan  
*Nahiz* aferretan  
 Bainan ez egundaino zure desiretan (4).

Bi aldetara artu laike “naiz aferretan”, edo “nahiz aferretan”; eni obeki zait “nahiz”. (Mil veces, en otras ocasiones, he amado en vano; nunca, en cambio, tuve deseos de ti.)

Beste batzutan, bi aldetara gauza bera adierazi dezake:  
 Zuk ez *nahiz* artu  
 Zu ez bezalakorik nahi dut autatu (ib. 1).

Erran nahi du: “A falta de tu amor quiero elegir otra mejor que tú”.  
 Eta itz berekin, berriz, erran daike:

Naiz zuk ez artu  
 Zu ez bezalakorik nahi dut autatu.

Azkenekotz emanen ditugu Bordelek ibiltzen dituen beste Luzaideko molde batzu. Batez ere, edozein galdeintza egiteko berek dakiten kirten bat sartzen dute:

*Eztuguya?*

Beti gertatzen dena: “el pez grande se come al chico”.  
*Eztuguya* ba ikusten  
 Gizenak flakuen jaten? (I. Karlistenak, 9).

*Ez dea?*

Jinko Jaunaren probidentzia *ez dea* ba aundia  
 Irauzketako plaza ortan holako argi noblia?  
 (Barberaren koblak, 2.)

Au noiznahi erraiten dute. Batez ere kalaka ari dielarik, funts gabeko zerbait izanik ere, artetan erran oi dute:

“*Ez dea* hala!” (no es así!):

Eta besteak:

“Nik *dakita?*” (qué sé yo?).

Edozein galdeintzetan berdin da: “Ikusi duzea?”; “ikusihuzia?”.  
 Eta erritarren artian ari badira, berriz: “ikusihuxia?” (has visto?). “Jan duzia dena?” “Ez; ez dixit jan” (no, no he comido).

Bestalde ahapaldi lehunak baditu Bordelek bere bertsutan:

Jesus, Maria, Joseph itzok aipatzian  
 Bake gozo ezti bat badut biotzian;  
 Gero eriotzian  
 Jauna jujatzian



*Jar zazkit* aldiā  
Hil nadin bakian:  
Zuretzat *ar nezazu* azken atsian (Ene Izp. 10).

7.<sup>a</sup> BITE, BEZATE, BITZATE, BALEZA

Bayonako Salan arrañamendua egin ondoan bakea itzuli baizen bazter auetara:

“Orai konpon *bite*”, dio bertsutan (Limiten Gain. 21).

“Nausi ahal *balite*” (si pudieran adueñarse...) (ib. 5).

“Oray erran *bezate* eya norena zen” (ib. 7).

Luzaideko lurrez zen gora-bera, eta baketu ondoan bere arrazoina ateratzen du.

“Elutxantzeko alaba” eroriari, berriz, konseilu emaiten dio:

Ideya hunak ar *bitzate* bakotzak bere onetan

Egin-hutsak errepara bizi diren egunetan (3).

Eta Napoleon irugarrena izan baizen muga auetan bakea erein zuena, arendako ditu asmo oberenak:

Jaunak plaza *baleza* bere saetsian

Borondate ori da ene biotzian (Lim. Gain. 23).

JOSE MARIA SATRUSTEGUI